


Bost erhi

Hurrek jendeen edo animalien esku edo zangoen hatzak¹ margotzen dituzte. Bestalde, igeltsua edo buztina erabil dezakete hatzen moldatzeko. Burrasoendako erakusketa antola.

¹ aztarnak, arrastoak.



012345678910

Matematika

Osaketak ahoz.

1	2	3	4
4	3	2	1
5	5	5	5

1	2	3	4
.	.	.	.
5	5	5	5

.	.	.	.
4	3	2	1
5	5	5	5

Borobiltegia egin



koropiloa egin

Izan daiteke lepoko bat perlaz egina.

borobilak manipula. Adib. : 1 eta 4, 5 dira

Osaketak ahoz :

1 eta ..., 5

2 eta ..., 5

3 eta ..., 5

... eta 4, 5

... eta 2, 5

... eta ..., 5



Margo lana

Matematika osaketak ahoz egin eta, ariketa bakoitzaren irudikatzeke, irakasleak eskuen marrazki zenbait ikasleei banatzen dizkie eta galdatzen erhiak bi koloretan eman ditzaten. Adib. : 1 berdez, 4 gorriz.

Erhiak mugimenduan

Ikasleak, zenbaki baten entzutean, erhi kopuru egokia erakusten du.

-KO destinatiboa

- Bost osatzeko, lau eta bat behar dira.

-Z instrumentala.

Leku-aditzondoak.

- Bat egin dut gorriz.

- Nik lau egin ditut berdez.

- Hemen gorriak dira.

- Hor urdinak dira.

Aditza aginteran.

- Erakuts itzazu bost.

- Erakuts ezazu bat.